DATUA

Fiskaltzaren jarrera

Zornotzako (Bizkaia) zazpi herritarren aurkako torturak aztertu zituen epaiketa hasi aurretik, Fiskaltzak kasua artxibatzeko eskatu zuen; baina lekukotza gogorren ostean bere jarrera aldatu eta Lucio de Sosa eta Jose Garcia guardia zibilak zigortzeko eskatu zuen.

ESANAK

TORTURAREN AURKAKO TALDEA

«Bi lagunek 21 urte daramatzate kartzelan, torturan oinarritutako deklarazio batekin»

AAB

«Estatuak gerra zikina darabil euskal herritarren aurka egiteko»

baina azkenean De Sosaren eta Garciaren aurka egiteko eskatu zion epaimahaiari, Larrinaga, Zabala eta Alberdi torturatu zituztela frogatuta geratu zela nabarmenduz momentuan. Dena den, Fiskaltzak eskatutakotik haratago joan da Entzutegia, eta zortzi guardia zibil zigortu ditu torturatzaile gisa.

Torturaren Aurkako Taldearen eta AABen balorazioa

Sententziaren berri izan bezain laster, Torturaren Aurkako taldeak (TAT) gertaerak jazo zirenetik epaitu diren arte iragandako denboraren luzea salatu zuen.

Torturak frogatuta geratu direnez, TATek arbuiatu egin du 1980ko polizi operazioan atxilotu zituztenetako bik —Fernando Irakulis eta Ernesto Alberdi— 21 urte daramatzatela kartzelan preso, «torturapean jazotako deklarazioetan oinarrituta». Hala, «pertsona horiekin zer jazoko den eta justizia aplikatuko ote zaien» galdetu zuen TATek prentsa ohar batean.

Bestalde, Amnistiaren Aldeko Batzordeek (AAB) epaian oinarrituta adierazi zutenez, «Estatuak gerra zikina erabiltzen du euskal herritarren kontra, eta tortura estrategia horren alde beltz bat besterik ez da». Azkenik, AABek Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariari galdegin zioten «euskal gizarteari argi eta garbi esateko torturaren aurka zer egiteko prest dagoen».

AUTOGOBERNUA. Ibarretxek «probetxuzko bilera» izan zuen atzo Juan Carlos I.arekin



MANUEL H. DE LEON

Espainiako errege Juan Carlos I.a eta EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxe, atzo, Zarzuelan.

Bizikidetza bermatzeko lan egin behar duela adierazi dio Jaurlaritzak Aznarri

Astelehenean bilduko dira Gasteizko eta Madrilgo gobernuburuak, eta Aznarri «giroa hobetzen» laguntzeko eskatu dio Imazek

Felix Iriarte | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariaren eta Jose Maria Aznar Espainiako gobernuburuaren arteko elkarrizketa giro politiko lasaian egitea nahiko luke Jaurlaritzak —«konfrontaziotik urrun», Josu Jon Imaz eledunak esan zuenez—, baina ez du ematen hala izango denik. Datorren astelehena bitarteko egunetan giroa hobetzen laguntzeko eskatu zion Imazek Aznarri: «Konfrontazio jokabideak ez garamatza inora, eta guztiek, baita Aznarrek ere, garbi izan behar dute bizikidetza bermatzeko egin behar dutela lan».

Autodeterminazioaren inguruko polemikak elkarrizketa baldintzatzea eragotzi nahi du Jaurlaritzak. Azken egunotan autodeterminazioaren aitzakiaz ika-mika bilatu dute Madrilen. Hala ere, Ibarretxek ez dio autodeterminazio eskubidea mahai gainean jarriko Aznarri, Estatutua baizik.

Estatutua betetzeko prest dagoen galdetuko dio Ibarretxek Aznarri, atzo Imazek aurreratu zuenez. «Madrilgo Gobernuak galdera bati erantzun behar dio: Estatutua betetzeko prest dagoen. Beste polemika guztiak antzuak dira».

Ibarretxek bi gobernuen arteko bitariko batzordea eratzeko proposatuko dio Aznarri. Lehendakariak, gainera, pentsatzen du ez dela ezer negoziatu behar: Madrilek borondatea badu, Estatutua «berehala» bete daitekeela. Hala ere, PPko buruzagiek egin dituzten azken adierazpenek agerian utzi dute ez dutela onartuko Ibarretxeren asmoa. Imazek gogora ekarri ditu Jaime Mayor Orejaren esanak: transferentzia batzuk ez direla eskuz aldatu behar, alegia.

Adierazpen horiek eta autodeterminazioari buruz egin dituztenak helburu jakin bat izango lukete, Imazek esan zuenez: giroa gaiztotu.

Gainera, Jaurlaritzako eledunak uste du «Aznarren eskandaluak estaltzeko» egiten dituztela halako adierazpenak. «Bitxia da, baina arazoak dituen bakoitzean halako polemikak pizten dituzte. Ez dute kalifikaziorik merezi».

Protokoloko bilera egin zuen Ibarretxek Juan Carlos I.arekin

Juan Carlos I.a Espainiako erregeak Zarzuelako jauregian hartu zuen atzo Ibarretxe. Protokoloko bilera izan zen, erregeak erkidegoetako lehendakariak jauregian hartzeko ohitura baitu, eta Ibarretxek joan den astean hartu zuen lehendakari kargua. Ordu eta erdiko bilera «probetxuzkoa» izan zen, Imazek esan zuenez.

Jaurlaritzak legealdi honetan izango dituen lehentasunak jakinarazi zizkion Ibarretxek. Guztien artean lehena «herritar guztien eskubideak eta askatasunak defenditzea» dela jakinarazi zion. Jaurlaritzaren lehentasun hori inbestidura saioan azaldu zuen Ibarretxek, eta atzo berretsi egin zion Espainiako erregeari. «Jaurlaritzaren lehen eginbeharra izan da, eta izango da, herritar guztien askatasunak bermatzea eta biolentziaren aurkako borroka», esan zuen Imazek, Ibarretxeren hitzak erabiliz.

Indarkeria gaitzetsi eta jazartzeko, Zuzenbide Estatuak dituen «tresna guztiak» erabili behar direla azpimarratu zion Ibarretxek. Gainera, horren inguruan alderdi arteko polemikariak ez duela onartuko esan zuen lehendakariak. «Gai hau ez da eztabaida partidistaren barruan egon behar», adierazi zuen Imazek.

ARNALDO OTEGI Batasuneko bozeramailea

«Estrategia bateratua izan behar dugu abertzaleok»

Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak atzo adierazi zuenez, Madrilek «argi» utzi du zein diren Espainiako joko arau demokratikoak: «Euskal herritarren hitza ez da errespetatzen Konstituzio horren pean». Hori «oinak lurrean jartzea» dela esan zuen: «Hala izanik, abertzaleek, aurrerakoiek eta demokratek estrategia bateratua planteatu behar dugu, inposaketa horri aurre egiteko eta Euskal Herriaren onarpenerako estrategia nazionala eta nazioartekoa antolatzeko. Ez dago beste biderik». Politika egiteko garaia dela, Ibarretxek esandakoarekin ados agertu zen Otegi. Eta «giza eskubide guztiak» defenditzeko prest, autodeterminazio eskubideri lehentasuna emanez. «Ez dakigu EAJk zer planteatuko duen. Guk eskatzen dugu Euskal Herrian eskubide oro errespetatzea eta trantsizio politikoa aurrera eramateko estrategia nazionala».

ONINTZA LASA EAko Komunikazio idazkaria

«Beldurra eragin nahi du Aznarren gobernuak»

Espainiako Gobernuak «beldurra» eragin nahi duela salatu zuen Onintza Lasak, «joko arau demokratikoen ordez, historiako beste garaietako indarrezko neurrien alde eginez». «Instituzioen bitartez modu baketsuan hauteskundeetan gehiengoa lortu dutenen legezko eskubide bat legez kanpo jarduten duten taldeen indarrezko praktikekin lotu nahi dute», adierazi zuen. EAko ordezkariaren iritziz, «ministro frankista batek sortu zuen taldean politikoki hazi zirenei traizio egin die subkontzienteak». Hori dela eta, dei egin zion Mariano Raxoiri, jendaurrean argitu dezan zer neurri hartuko dituen Madrilek, euskal herritar gehienek autodeterminazioa aldarrikatuz gero: «PPk adierazi baitu edozein erreibindikazio planteatu daitekeela demokrazian, modu baketsu eta demokratikoan egiten bada». Lasaren ustez, autodeterminazioa «egungo legerian egin daiteke».